

+

Andoain'dik 1956'gn. Uzta'ren 24'⁹en

Pierre Lafite Apaiz Jaunari
USTARITZE'ra

Agur.

Artu dut zure, Sara'ko Axular-festetarako gomita. Eskerrik asko. Meza Nagusiko itzaldia egiteko deia egiten didazu bide batez. Garbiki esan bear dizut, ez nauzu bein ere itzaldi-zale izen; eta orain - urte batzuek munduan emenik - ere gutxiago. Idaztea beti ere atsegin izan bazait ere, itzaldietako konposiziooneak buruan sartzea ez dut sekulan gogoko izan. Eta - berriz ere diotzut - orain inoiz baño gutxiago.

Nik uste nuke orko batek bear lukela lan eta ohore ori beretzat artu. Zuk ikusiko duzu zeñek lezakeen obekienik. Arradoi Jaunak ez ote-lizuke pozik artuko? Ortarako gaitasunez gañera, itzal aundia luke gure Narbaiz Jaunak arlo ortarako. Guk beintzat pozik entzungo genioke.

Emen ba'genduke nor edo nor guk ere: Aita Agirretxe bat, edibidez. Prentziskotarra da; eta nai baduzu Aita Vilasante'ri eskiriba dezaiokezu Arantzazu'ra, ea A. Agirretxe'k ote-dezaken jakiteko. Ongi prestatua dago, eta batez ere gauzak guztion gustora dotore esan ditzazke. Olokoetan ori bait-da bearren, gauzak maisuki ta errex esatea. Orain - ori bai - España-aldeko oratoria ezagutzen duzu: beti ere bero-antzekoa izan oi da, ta ao-betekoa beti ere. Or fiñago iruten duzute aria. Or ikusi. Len emen genduan A. Mitxelena ere; eta ain xuxen ortarako - Euskaltzaindiaren Jaletako Itzaldietarako - autatua ta Euskaltzaindi'ko Urgazle, Correspondiente, egiña. Orain Ameriketan da ezik. Bañan, len ere esan dizut eta, nere aburuz orkoa obe

izango ga ote-~~den~~.

Uste dut Jaialaren berri emana izango duzun Euskaltzaindiari. Leis-
terea berriz ere Illeroko Batzarra. ~~Ordua~~ izketatu naiz nere
lagunekin. Uste dut baita denak pozik artuko dutela zuen esmoa ta
gomita.

Ordea nere iritzia esan batere beldurgabe. Sentitzen dutalarik,
ona bai, ezezkoa izatea egin didazan eskabidean. Berka.
Zure adiskide ta Euskaltzainkide

Mamud de Recasens

195

215

350

Andoaindik, 1970'gn. Martxoaren 10'ean

Pierre Lafitte Jaunari


USTARITZ'era

Agur, adiskide: Gure lagun Haritschelhar Jaunari bidaltzen diot, emen kopian dijoakizun letra au.

Or diodana, zuretzat ere berditntsu da. Irakurri ezazu, eta ikus, noiz egin dezakegun aipatzen dedan Batzar ori.

Eppherre adiskideari ere konbeni litzake, esan dezaiozun, gertatzen dena, eta konbeni litzakela, bera ere etor dedin gure artera Mendakari Orde Jaunak erabaki dezan egunean. Zure kontu.

Egun ura arte, zure adiskide

 Pierre Lafitte